

"Europa"k 1, euskaldunak esperantza

Hondarribia, 41. zk., 1990-11: 11.

Europar sartuko gaituzte orain.

Ez dakit zer etorkizun izango duen Hondarribiko flotak Europa batu eta berriak eskaintzen dion babes berri honetan.

Euskaldunok Europa zaharrari begira izan badiogu, ez dugu estatu zanpatzartengandik laguntzarik jaso; handi guztiek bat egin izan dute txiki-xehea zanpatzeko. Jainkoaren legea dela ere esan izan digute, arrain handiak txikiarekin naturalki egiten duena ere. Berak jarritako legea delako, alajaina!

Ez dute mokau handia lapurretan jan bakarrik egiten, arrazoi izan nahi dute gainera.

Jainkoaren izenean agintzen zuten erregeak ziren, eta kito.

Egia esan, nik badut Europako Elkartea honengandik, Espainiak eta Frantziak eskaini diguten baino errespetu demokratiko zabalagoaren babesa lortuko dugunaren esperantza.

Ez federik, esperantza baino.

Halere, Bruselan, Elkartearen hiriburuan, irakurri berri dudan zerbaitek kezkatu berri nau. Egia da, irakurritakoa XIX. go historiari dagokiola, eta ez zuzenki guri egindakoa, Afrikako herri beltzei baino; halere gizaldi honetan jasan izan dugun portaera eskasak nozitu ditugunez gero, ez dakit irakurri berria dudan historia honekin zer egin, eta *Hondarribia*-ko irakurleei pasako diet.

Bakoitzak bere ondorena atera dezala.

XX. goan ezagutu ditugun Europako potentzia gehienak sartu zuten muturra Afrikan aspaldi, eta 1884an Alemaniako Bismarck-ek falta zenak! Kamerun jan zuen, gero Togo eta gero. Baina kezka bat izan nuen; ez zuela Afrikan lapurretan zebiltzan artean istilurik nahi! beren artekorik ez! Begikako Leopoldo II.ak ere ez, ezetz, beren arteko liskarrik ezetz; Jainkoaren izenean, eta "behin betiko" Afrikarako lege berri bat ezarriko zutela, eta, hala, Berlinen bildu eta hara onartu zuten laburpentxo bat.

"Europar batek egindako esplorazioak, ikusketariari zegokion Estatuari zegokiola, zuzenean bere mende jarri nahi bazuen". "Kosta dominatzen zuenarentzat zela itsasbater horri zegokion lurraldea". Ez zirela kolonia berrien lurraldea erabakitzerakoan, Afrikako herri eta estatuen mugak kontutan eduki behar". "Koloniak, beste batekin trukatu, bertan behera utzi edo moldaberritu daitezkeen ondasunak dira". "Europarrak zibilizazioa zabaltzeko duten misioak berak nahiko indar duela ekintza horiek justifikatzeko".

Gure kasuan, irakurle, ez gaituzte bakarrik herri bezala zanpatu, besteak zanpatzeko ere erabili gaituzte. Nire aitari Marokkon egin arazi zioten soldaduzka, Ceuta eta Tetuanen, eta neuk ere bai hiru urtez Tetuan, Tzelata de Anyera eta Targist eta

Alkazarzegerren, beste euskaldun, pilo batekin, andoaindarrak batzu, ni bezala, eta hondarribiarren bat ere izango zen 1942ko kinta horretan.

Hau irakurri eta gero, datorren Europak euskaldunei zer ekarriko digun pentsatzen jarrita, bada zer pentsa!

Ez okerrena, halere.

Okerrena pasa dugu.

Hemendik aurrerakoak gerok irabazi behar ditugu, herri bezala, hizkuntza bezala, demokratikoki gure eskubideak Ekialdetik datorkigu exenplua eguzkia bezain argi.